



<b>abantzu</b> 'aurrerakada'	«...aurpegian ondo asko islatua zeukan eritasunaren <b>abantzua</b> , are lazgarriagoa bihurtua kriseiluetako garrek eragindako argi-itzal dantzarien ondorioz.»	(10)
<b>adeitasun</b> 'errespetua'	«Gizalegeak eta diplomaziaren arauak hainbeste <b>adeitasunez</b> hartzen gintuztenei ohoreak egitera behartzen ninduezez gero...»	(9)
<b>aienatu</b> 'uxatu, aldendu'	«...harridura ikaratua giza keinu soil horrekin <b>aienatuko</b> zuela espero balu bezala...»	(14)
<b>aitorra egin</b> 'konfesatu'	«... <b>aitorra egin</b> nahi nuke, luzamendutan ibili gabe.»	(12)
<b>akuilatu</b> 'zirikatu, eragin'	«...iristen zitzaizkion esames zitalek <b>akuilatuta</b> , bera ere hasi zen ezkontzeko kontuak ateratzen...»	(41)
<b>alapide</b> 'hizpidea'	«...komentuko gertakari misterioitsu horiek entzute handia izan zuten (...) eta <b>alapidetik</b> egokiena gertatu ziren...»	(23)
<b>alegatu</b> 'arrazoiak edo iritziak eman'	«...neure buruaren alde <b>alegatu</b> behar dut beste hainbat kristau onen arimak salbatzearen jokatu nuela horrela...»	(14)
<b>apeta</b> 'guraria'	«Rosario andreak marmarrean aldegin zuen, ernegaturik, nire jaunak askotan izaten zituen <b>apeta</b> bitxi horietako beste bat jasan beharragatik.»	(34)
<b>arpe</b> 'erpea, animalien hatzak'	«...aurpegi nardagarriko izaki infernutar bat ikusi zuela ohe ondoan, azal heze eta gogorreko <b>arpe</b> batez ahoa estali ziona.»	(22)
<b>arrabots</b> 'arrabotsa, astrapala, zarata	« <b>Arrabots</b> gehiago entzun nuen orduan, baina nire gainean...»	(21)
<b>arretu</b> 'ilundu, gris bihurtua'	«...umearoko oroitzapen <b>arretuen</b> artean gordeta neukan arrebari buruzko irudi lausoa.»	(11)
<b>arta</b> 'ardura, arreta'	«...Berorren Ilustrisimoa ohartu ahalko da berorren <b>artaren</b> behar handiagoa duela nirearena baino.»	(10)
<b>asaldapen</b> 'harridura, izualdia'	«...nire gainera jausi behar zuen <b>asaldapenaren</b> iragarle...»	(13)
<b>atu</b> 'garraiatzeko arropa bildua	«...eraman behar genituen kutxa, <b>atu</b> eta zamari ugariekin, beharrezkoa zen hura ere etortzea...»	(37)
<b>bailuen</b> 'balu bezala'	«...argirik gabe zetorren, eta arta handiz, inork entzuterik nahi ez <b>bailuen</b> .»	(21)
<b>berbajariora</b> 'berritsua, berbalapikoa'	«Ez naiz inoiz borondate-indar handiko gizona izan, are gutxiago nire emazte <b>berbajarioraren</b> erasoan aurrean...»	(55)
<b>burutik aldaratu</b> 'burutik jota, burua galduta'	«Duela zenbait urte <b>burutik aldaratua</b> hil zela esan zidan norbaitek.»	(23)
<b>debalde</b> 'alferrik'	«Carmen emakume zuhur eta bizkorra zen, burua ez zeukan <b>debalde</b> -eta...»	(47)
<b>deliberatu</b> 'erabaki'	«...haien kontseiluei jarraituz, gu bion jaioterriaren alde zerbait egitea <b>deliberatua</b> zuen...»	(54)
<b>detxema</b> 'zerga, hamarrena'	«...nekazariak ordaintzen zieten <b>detxemaren</b> laurden bat gure Ordenari eman behar zitzaiola agindu zuten...»	(17)
<b>donge</b> 'txarra, gaiztoa'	«...beharbada, elektetari <b>dongee</b> helarazi zizkieten marmarizo pozoitsuengatik...»	(42)
<b>egonarri</b> 'pazientzia, eroapena'	«...berbak eta esaldiak behin eta berriro errepikatuz, Job santuaren <b>egonarriaz</b> ...»	(32)
<b>ekandu</b> 'ohitura'	«Hasieran kostatu egin zitzaidan moldatzea Gaztela hartako bizimodura, jendeetara eta haien <b>ekanduetara</b> ...»	(39)
<b>eleketari</b> 'berbalapikoa, berritsua,	«...beharbada, <b>eleketari</b> dongee helarazi zizkieten marmarizo pozoitsuengatik...»	(42)



<b>ernegaturik</b> 'aspertuta eta haserre'	«Rosario andreak marmarrean aldegin zuen, <b>ernegaturik</b> , nire jaunak askotan izaten zituen apeta bitxi horietako beste bat jasan beharragatik.»	(34)
<b>erretolika</b> 'hizketa luze-aspergarria'	«...oihu ozen pare batez mozten zituen bertan arrebaren <b>erretolikak</b> eta osabaren predikuak.»	(35)
<b>eskailera aho</b> 'eskailera hasiera'	«Arnasa ere entzuten nion (...) <b>eskailera ahoan</b> .»	(21)
<b>eskumenean</b> 'eskura, helmenean'	«Konturatzeke, <b>eskumenean</b> zeukan kriseilu piztuari heltzea lortu eta burura jaurti zion...»	(22)
<b>estola</b> 'apaizen lepotik beherako zinta'	«Horrenbestez, kutxatilan zegoen <b>estola</b> jantzi eta haren aldean eseri orduko, hasiera eman zion harrez geroztiz (...) solasaldi torturagarri bati.»	(12)
<b>estraineko</b> 'lehen'	«...kalera irteten zenean <b>floretea</b> eramaten hasi zen, estraineko aldiz.»	(45)
<b>flakatu</b> 'zalantzatan sentitu, ahuldu'	«Ez daki berorrek zenbat aldiz <b>flakatu</b> den nire fedea, eta ahuldu nire indarrak...»	(15)
<b>florete</b> 'ezpata mota'	«...kalera irteten zenean <b>floretea</b> eramaten hasi zen, estraineko aldiz.»	(45)
<b>galgarri</b> 'kondenagarria'	«Eta nola jakin dezakegu Jainkoak eskatutako sakrifizioa den ala gaiztaginaren azpikeria galgarria?»	(15)
<b>galkuntza</b> 'hondamendia, heriotza'	«...baina hainbat errugaberen <b>galkuntzaren</b> erruduntzat neukan gizon harekiko erukirik ezin nuen sentitu...»	(19)
<b>guri</b> 'biguna eta mamitsua'	«...errukitu egin nintzen nire jaunaz, uko egiten baitzion emakume <b>guri</b> konplaziente batek ematen duen atsegin neurrigabeari.»	(38)
<b>hilduratua</b> 'mindua, mortifikatua'	«...ohatilan etzanda ikusten nuen emakume <b>hilduratu</b> hura...»	(11)
<b>hizki-mizki</b> 'kontua'	«...mojagai kaskarin batzuen <b>hizki-mizkiak</b> baino gehiago zena, gertatu zen.»	(17)
<b>horrenbestez</b> 'horrela, bada'	« <b>Horrenbestez</b> , kutxatilan zegoen estola jantzi eta haren aldean eseri orduko, hasiera eman zion harrez geroztiz (...) solasaldi torturagarri bati.»	(12)
<b>hostaila</b> 'hosto-abarren multzoa'	«...udazkenak berarekin ekarri ohi dituen koloreengatik herdoiltsuak diruditen gaztainadi eta pagadien <b>hostaila</b> koroatuko bailuten.»	(8)
<b>hunkiberena</b> 'sentikorrena'	«...moja izateko biderei uzten zion nobiziarik bazela (...) erantzuten zuten holakoetan, gure arteko <b>hunkiberenak</b> lasaitu beharrez.»	(16)
<b>iaio</b> 'trebea, antzetsua'	«...Espainiako artisau eta artistarik <b>iaioenek</b> eraikitako etxalde hau guztia...»	(30)
<b>iragarri</b> 'gertakizuneko zerbait aurrean'	«Baziren zenbait hilabete (...) fisikoak <b>iragarri</b> ziola gaitz sendaezin baten biktima zela...»	(7)
<b>iraulketa</b> 'goitik beherako aldaketa'	«...ez genekielarik hainbat urte geroago dohain horren eraginez bion bizitzan gertatuko zen <b>iraulketaren</b> berri.»	(36)
<b>iristera</b> 'etorrera'	«...hari gure <b>iristeraren</b> berri ematearren zaldizko bat bidali baikenuen gure aurretik...»	(9)
<b>irmo</b> 'tinkoa, sendoa'	«...gaitzak jo gabea zirudien esku <b>irmoaz</b> idatzitako gutun batekin...»	(7)
<b>isla</b> 'islada, erreflexua'	«...begietan inoiz baino bizitasun eta bizkortasun handiagoa aurkitu nion, beharbada sugarren <b>islagatik</b> , ez dakit.»	(53)
<b>izangabe</b> 'nortasun bakoa'	«...Sevillako zaldun eta aitonseme guztiz izendun bezain <b>izangabeak</b> ez zuelako nahi bere arreba Carmencita jaun eta aberats ez zen norbaitekin	(41)
<b>juzku</b> 'epaia, erabakia'	«...Jainkoari galdetu gabe ordu hartan hartu nuen erabakia zuzena ote zen ala ez, nire <b>juzkua</b> erratua ez ote zen izan...»	(14)



<b>kilimak egin</b> 'kili-kiliak egin'	«...niri ere <b>kilimak egiten</b> zizkidan gure herrira itzultzeko burutapen hark...»	(55)
<b>kimu</b> 'adarra, arrama berria'	«...gure errepublikako gizasemerik prestuena eta loriatsuena iritziko zion Monte- feltrotarren azken <b>kimuari</b> .»	(18)
<b>korde</b> 'konortea, zentzua'	«Hala ere, <b>kordeari</b> eusten omen zion oraindik.»	(9)
<b>kriseilu</b> 'oiliozko argi-ontzia'	«Bere aurpegian ondo asko islatua zeukan eritasunaren abantzua, are lazgarriagoa bihurtua <b>kriseiluetako</b> garrek eragindako argi-itzal dantzarien ondorioz.»	(10)
<b>lardaskan</b> 'aldbesten, mugitzen'	«...ondo bainekien nolako egurra jasoko zuten nire hezurrek haren dokumentuekin <b>lardaskan</b> harrapatzen baninduen.»	(32)
<b>lauso</b> 'nahasia, definizio gabea,	«...umearoko oroitzapen arretuen artean gordeta neukan arrebari buruzko irudi <b>lauso</b> .»	(11)
<b>lazeria</b> 'zorigaitza, ondikoa'	«...beharbada, pairatzen ari den infernuko <b>lazeria</b> berberak niretzat ere izango direla dakidalarik...»	(19)
<b>linburkeria</b> 'bidea leuntzeko trikimailua'	«Ez nuke asmatuko esaten nolako sorginkeriak eta <b>linburkeriak</b> erabili zituen...»	(49)
<b>lo-ernai</b> 'erabat lokartu gabe'	«...zerbait aditu zuela gelan <b>lo-ernai</b> zegoelarik...»	(22)
<b>makina bat bider</b> 'askotan, hainbat aldiz'	«...latinez gutxi ulertzen nuen arren, elizan <b>makina bat bider</b> aditua nuenez gero, ez nuen oso gaizki egingo...»	(33)
<b>mataza</b> 'hari korapiloa'	«...neuk egiten eta desegiten ditut hemengo kristauen eta fedegabeen bizitzen <b>matazak</b> ...»	(30)
<b>men egin</b> 'obeditu'	«...Jainkoaren legeei <b>men eginaz</b> igaro den kristau on baten aitortle izateko usteaz etorri da nigana seguru aski...»	(13)
<b>menean</b> 'menpean'	«...nire bihotz-arimak kolokan eta izuaren <b>menean</b> jarriko zituzten pasarteak...»	(13)
<b>muker</b> 'zakarra, purrustaria'	«...ez zen inorekin fidatzen eta nirekin ere hasi zen uzkur eta <b>mukerrago</b> izaten.»	(46)
<b>munta</b> 'garrantzia'	«...ahotik ahora erabiliak izatean hainbateko <b>munta</b> hartu eta azkenean Elizako agintariengana hel zitezen.»	(23)
<b>murru</b> 'harresia, horma sendoa'	«...marmore zuriz estaldura batez jantzia hegoaldera jotzen zuen <b>murruetan</b> .»	(9)
<b>olde</b> 'uholdea'	«—Bada, benetako murmurazio <b>oldea</b> harrotu zuen komentuko hormen barruan...»	(17)
<b>orobat</b> 'era berean, baita'	«Dena den, hilabete batzuk geroago, komunitate guztia eta, <b>orobat</b> , Urbino osoa aztoratu (...) zuen zerbait ikaragarria...»	(16)
<b>piltzar</b> 'hondaturik dagoen ehuna,	«...nire soineko <b>piltzarretako</b> zuloetatik haize hozminak gogortua, morroi eraman ninduten gure jaunaren etxera...»	(31)
<b>senperrenak egin</b> 'eginahalak, ahalegin itzelak'	«...halako eritasun lotsagarri horietako bat harrapatu baitzuen, <b>senperrenak egin</b> behar izan zituelarik emazteari ezkutatzeko.»	(38)
<b>sesio</b> 'liskarra, eztabaida'	«Hartara, <b>sesiorik</b> ez nuela-eta isildu, eta Carmenen ernegu jasa atertu zain geratu nintzen.»	(55)
<b>suhi</b> 'alabaren senarra'	«...Doña Anaren aitak gradu eta noblezia handiagoko <b>suhia</b> nahiko zuen etxean...»	(42)
<b>sumin</b> 'mingarria'	«...sofritzen ari nintzen halako zaileko proba horren mingostasunak, behin ere abandonatu ez nauen dudaren <b>suminak</b> .»	(15)
<b>suspergarri</b> 'bizigarria, animozkoa'	«Hala ere, nire jaunaren izpiritua ez zen sendatu elizgizonaren berba <b>suspergarri</b> haiekin...»	(46)



<b>uzkur</b> 'mesfidati'	«...ez zen inorekin fidatzen eta nirekin ere hasi zen <b>uzkur</b> eta mukerrago izaten.»	(46)
<b>zena zelako</b> 'ezezaguna, definitu gabea'	«...halako fortunaz non olioia isuri eta lepaingurua garretan jarri baitzion <b>zena zelako</b> hari.»	(22)
<b>zital</b> 'gaiztoa, txar-txarra'	«...iristen zitzaizkion esames <b>zitalek</b> akuilatuta, bera ere hasi zen ezkontzeko kontuak ateratzen...»	(41)